

**2008ko MAIATZAREN 8an LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN  
OSPATUTAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2008ko maiatzaren 8an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Xabier Mujika alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Adela Mendiola Gomez  
Iñigo Aginalde Lertxundi  
Karlos Irazu Muñoa

Bere ezin etorria azaltzen du: Igor Barandiaran Perez de Arriluzea

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate-lehendakari jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarreko akta onestu, hala badagokio:**
  - **2008ko apirilaren 3an ospatutako ohiko bilkura.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. TOLOMENDI, Tolosaldeko Landa Garapen Elkarteari 2008 urterako ekarpenaren onespena, hala badagokio.**
- 4. AIZTONDO Zerbitzuen Mankomunitateari 2008 urteko 1. hiruhilabetearen ekarpenaren onespena, hala badagokio.**
- 5. Larraulgo Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 3.1. exekuzio unitateko urbanizazioa errezepzionatzeko onespena, hala badagokio.**
- 6. Larraulgo Udalaren eta Tolosa Herria Hedabideak E.M. ren arteko hitzarmen proposamenaren onespena, hala badagokio.**
- 7. Hiru urtetik beherako haur eskolen kudeaketarako eta hauei zuzendutako asistentzia eta hezkuntza-arretarako Haurreskolak kontsorzioaren estatutoen onespena, hala badagokio.**
- 8. Hiru urtetik beherako haurren eskolak eta hauei zuzendutako asistentzia- eta hezkuntza-arreta kudeatzeko Haurreskolak**

**Partzuergoaren eraketarako Eusko Jaurlaritzaren eta Larraulgo Udalaren arteko lankidetzeta-hitzarmenaren onespena, hala bada.**

**9. Hiru urtetik beherako haurren eskolak eta hauei zuzendutako asistentzia- eta hezkuntza-arreta kudeatzeko Haurreskolak Partzuergoaren eraketarako Eusko Jaurlaritzaren eta Larraulgo Udalaren arteko Lankidetzeta-Hitzarmenaren eranskinaren onespena, hala bada.**

**10. Fakturak eta ordainketak.**

**11. Beste batzuk.**

**12. Erregu, galderak eta mozioak.**

.../...

### **LEHENENGO PUNTUA**

#### ***ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADAGAKIO.***

- ▣ 2008 urteko apirilaren 3ko Ohiko Udalbatzaren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

### **BIGARREN PUNTUA**

#### ***ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA***

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

05/2008 Alkatetza Ebazpena, apirilaren 15ekoa, 2008ko 1. Hiruhilabeteari dagokion ura eta zabor tasen erroldak onestea ebazten duena.

06/2008 Alkatetza Ebazpena, apirilaren 18koa, INEM-CCLL hitzarmenaren arabera liburutegirako administari laguntzaile bat kontratatzeke diru-laguntza eskaera ebazten duena.

07/2008 Alkatetza Ebazpena, apirilaren 22koa, INEM-CCLL hitzarmenaren arabera peoi bat kontratatzeke diru-laguntza eskaera ebazten duena.

08/2008 Alkatetza Ebazpena, apirilaren 23koa, INEM-CCLL hitzarmenaren arabera Larraulgo herri bideen inbentarioa egiteko ikertzaile bat kontratatzeke diru-laguntza eskaera ebazten duena.

09/2008 Alkatetza Ebazpena, maiatzaren 8koa, 2007ko aurrekontuaren likidazioa onartzea ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

**HIRUGARREN PUNTUA**

**TOLOMENDI, TOLOSALDEKO LANDA GARAPEN ELKARTEARI 2008 URTERAKO EKARPENAREN ONESPENA, HALA BADAGOKIO**

Ikusirik 2008ko apirilaren 22an Tolomendi, Tolosaldeko Landa Garapen Elkarteak aurkezturiko idatzia, non 2008 ekitaldiko elkartearen funtzionamendurako gastuei aurre egiteko Larraulgo Udalak burutu beharreko ekarpena 2.321,09 eurokoa dela adierazten den.

Ikusirik kreditu nahikoa aurreikusia dagoela.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

**ERABAKITZEN DUTE**

LEHENGOA.- Tolomendi Landa Garapen Elkarteari 2.321,09 eurotako ekarpena burutzea 2008 ekitaldiko funtzionamendu gastuei aurre egiteko.

BIGARRENA.- 2008 urteko aurrekontuan partida nahikoa aurreikustea

**LAUGARREN PUNTUA**

**AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEARI 2008 URTEKO 1. HIRUHILABETEAREN EKARPENAREN ONESPENA, HALA BADAGOKIO**

Ikusirik 2008ko apirilaren 16an Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak aurkezturiko idatzia, non 2008 ekitaldiko 1. Hiruhilabetearen sortu daitezkeen gastuei aurre egin ahal izateko Larraulgo Udalak burutu beharreko ekarpena 10.226,64 eurokoa dela adierazten den.

Ikusirik kreditu nahikoa aurreikusia dagoela.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

**ERABAKITZEN DUTE**

LEHENGOA.- Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 10.226,64 eurotako ekarpena burutzea 2008 ekitaldiko 1. Hiruhilabetearen sortu daitezkeen gastuei aurre egiteko.

BIGARRENA.- 2008 urteko aurrekontuan partida nahikoa aurreikustea

**BOSTGARREN PUNTUA**

**LARRAULGO PLANEAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO 3.1. EXEKUZIO UNITATEKO URBANIZAZIOA ERREZEPZIONATZEKO ONESPENA, HALA BADAGOKIO**

Ikusirik J. L. O. Z. jaunak, PABEOPIN S.L. ren izenean eginiko eskaera, non Larraulgo AA.SS-etako 3.1. exekuzio unitateko urbanizazioa errezepzionatzea eskatzen duen.

Ikusirik Udaleko Aholkulari Teknikaria den E. E. B. andreak 2008ko apirilaren 16an luzaturiko txostenean dioena:

*“J. L. O. Z. jaunak, PABEOPIN S.L. ren izenean 3.1. exekuzio unitatearen urbanizazioaren errezepzioa egiteko eskaera ikusirik, eta 2007ko urtarrilaren 9ko txostenean urbanizazioa burutzeko udalaren partetik eskatu ziren lanak dagoeneko eginak daudenez, egindako obra, lizentzia eskatzerakoan aurkeztu zen exekuzio proiektuari egokitzen zaiola adierazten dut.*

*Beraz, urbanizazioan egon diren moldaketek ere Larraulgo araudia betetzen dutenez eta udalaren partetik beharrezkoak diren dokumentuak aurkeztu direnez, egokia izango da urbanizazioa errezepzionatzea.”*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

**ERABAKITZEN DU:**

**LEHENENGOA:** Larraulgo AA.SS.-etako 3.1 exekuzio unitateko urbanizazioa errezepzionatzea.

**BIGARRENA:** Urbanizazioa bukatu denetik urtebete igaro denez, obrak bermatzeko jarritako fidantza bueltatzeko beharrezkoak diren izapideak martxan jartzea.

**HIRUGARRENA:** Erabaki honen berri interesdunari ematea.

**SEIGARREN PUNTUA**

**LARRAULGO UDALAREN ETA TOLOSA HERRIA HEDABIDEAK E.M. ren ARTEKO HITZARMEN PROPOSAMENAREN ONESPENA, HALA BADAGOKIO**

Ikusirik Tolosa Herria Hedabideak E.M. k aurkezturiko hitzarmen proposamena, Larraulgo Udalak onestu dezan 2008-2011 urte bitartean.

Gaia aztertuturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosa Herria Hedabideak, E.M. k aurkezturiko hitzarmen proposamena ez onartzea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Tolosa Herria Hedabideak, E.M. ri ematea.

**ZAZPIGARREN PUNTUA**

**BI URTETIK BEHERAKO HAUR ESKOLEN KUDEAKETARAKO ETA HAUEI ZUZENDUTAKO ASISTENTZIA ETA HEZKUNTZA-ARRETARAKO HAURRESKOLAK KONTSORTZIOAREN ESTATUTOEN ONESPENA, HALA BADAGOKIO**

Ikusirik Larraulgo Udalak beharrezkoa ikusten duela udalerrian bi urtetik beherako haurrei heziketa eta laguntza zerbitzuak ematea.

Ikusirik zerbitzu hauek eskaintzeko Udalak interesgarria ikusten duela “Haurreskolak” partzuergoan sartzeari.

Ikusirik aurreko puntuan jorratutakoaren arira, kontsorzioan sartzeko Udalak erakunde honen Estatututak onartu behar dituela.

Gaia aztertuturik, bertaratuek, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Larraulgo Udala bi urtetik beherako haurren eskolak eta hauei zuzendutako asistentzia eta hezkuntza-arreta kudeatzeko eratu den “ Haurreskolak” partzuergoan sartzeari eskatzea.

BIGARRENA.-Partzuergoari erabiltzen urzteko haurreskola gisa erabiltzeko, kultur etxe berrian dagoen instalakuntza, haurreskola han egongo den bitartean eta kudeaketa mota honek iraungo duen bitartean.

HIRUGARRENA.-“Haurreskolak “ partzuergoaren Estatutuak hasiera batez onartzea, erabaki honen erainskinean jasotako edukiaren arabera.

LAUGARRENA.- Espedientea jende aurrean jartzea hogeita hamar egunetako epean edonork aztertu eta egoki derizkion erreklamazioak egin ahal izateko. Epe horretan inolako erreklamaziorik tarteratzen ez bada, hartutako erabakia behin-betirako onartutzat joko da, beste erabakirik hartzeko beharrik gabe.

### **ZORTZIGARREN PUNTUA**

**BI URTETIK BEHERAKO HAUREN ESKOLAK ETA HAUEI ZUZENDUTAKO ASISTENTZIA- ETA HEZKUNTZA-ARRETA KUDEATZEKO HAURRESKOLAK PARTZUERGOAREN ERAKETARAKO EUSKO JAURLARITZAREN ETA LARRAULGO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENAREN ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik bi urtetik beherako haur eskola kudeaketarako eta hauei zuzendutako asistentzia eta hezkuntza arreta emateko eta haurreskola funtzionamenduan ipintzeko Eusko Jaurlaritza eta Larraulgo Udalaren artean lankidetzaz hitzarmena onartu beharra dagoela.

Gaia aztertutik, bertaratuek, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.-“Hurrekolak” partzuergoaren eraketarako Eusko Jaurlaritzaren eta Larraulgo Udalaren arteko Lankidetzaz Hitzarmena hasiera batez onartzea, erabaki honen erainksinean jasotako edukiaren arabera.

BIGARRENA.- Espedientea jende aurrean jartzea hogeita hamar egunetako epean edonork aztertu eta egoki derizkion erreklamazioak egin ahal izateko. Epe horretan inolako erreklamaziorik tarteratzen ez bada, hartutako erabakia behin-betirako onartutzat joko da, beste erabakirik hartzeko beharrik gabe.

HIRUGARRENA.- Udaleko Alkate-Lehendakaria den Xabier Mujika Pagola jauna ahalmentzea aipatutako hitzarmena sinatzeko.

### **BEDERATZIGARREN PUNTUA**

**BI URTETIK BEHERAKO HAUREN ESKOLAK ETA HAUEI ZUZENDUTAKO ASISTENTZIA- ETA HEZKUNTZA-ARRETA KUDEATZEKO HAURRESKOLAK PARTZUERGOAREN ERAKETARAKO EUSKO JAURLARITZAREN ETA LARRAULGO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENAREN ERANSKINAREN ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik zazpigarren eta zortzigarren puntuetan erabakitakoaren arabera Larraulgo Udalerria “Haurreskolak” partzuergoan sarrera eskatzeko erakunde horren Estatutuak onartu eta Eusko Jaurlaritzaren eta Larraulgo Udalaren arteko lankidetzaz hitzarmena onartu direla.

Ikusirik era berean beharrezkoa dela “Haurreskolak” partzuergoaren eraketarako Eusko Jaurlaritzaren eta Larraulgo Udalaren arteko Lankidetzaz Hitzarmenaren erainksina onartu beharra dagoela.

Gaia aztertutik, bertaratuek, aho batez

## ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- “Haurreskolak” partzuergoaren eraketarako Eusko Jaurlaritzaren eta Larraulgo Udalaren arteko Lankidetzaren Hitzarmenaren eranskina hasiera batez onartzea, erabaki honen eranskinean jasotako edukiaren arabera.

BIGARRENA.- Espedientea jende aurrean jartzea hogeita hamar egunetako epean edonork aztertu eta egoki derizkion erreklamazioak egin ahal izateko. Epe horretan inolako erreklamaziorik tarteratzen ez bada, hartutako erabakia behin-betirako onartutzat joko da, beste erabakirik hartzeko beharrik gabe.

HIRUGARRENA.- Udaleko Alkate-Lehendakaria den Xabier Mujika Pagola jauna ahalmentzea aipatutako hitzarmenaren eranskina sinatzeko.

### **HAMARGARREN PUNTUA**

### **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

EBAKILAN S.L	74,85
KOLDO JAUREGI	2.089,16
DIONISIO ORMAZABAL S.A.	56,17
CONTENEDORES LABAIEN	318,70
AIZKIBEL	117,07
AMONARRIZ ITURGINTZA	3.039,13
ALKI ANOETA	27,84
ZIZURKILGO UDALA	235,39
FERRETERIA BARBE	28,07
REPSOLGAS	41,10
REPSOLGAS	48,00
ARGITU ASESORES	201,26
IBERDROLA	217,63
KIROLZER	124,20
LASURTEGUI ATXEKI S.L	64,38
IBERDROLA	199,16
IBERDROLA	216,46
IBERDROLA	277,34
IBERDROLA	79,84
IBERDROLA	280,28
IBERDROLA	32,58
IBERDROLA	83,45

IBERDROLA	145,51
TELEFONICA	20,36
TELEFONICA	91,53
TELEFONICA	29,74
TELEFONICA	16,21
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	98,28
IZFE	1.572,61
ULAH	741,05
EUSKALTEL	113,96
REPSOLGAS	173,70
REPSOLGAS	89,91
ARGITU ASESORES	126,21
IBERDROLA	153,98

Udalbatzarrak **ahobatez** hurrengoa,

#### ERABAKITZEN DU

LEHENGOA.- Aipaturiko fakturak, denera **11.225,11** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

#### **HAMAIKAGARREN PUNTOA**

#### **BESTE BATZUK**

#### **11.1. 2007 EKITALDIKO UDAL AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA**

Idazkari-kontuhartzaileak 2008/09 Alkate Dekretuaren berri ematen du, non 2007 ekitaldiko udal aurrekontuaren likidazioa onesten den. Batzarkideak jakinaren gainean gelditzen direlarik.

#### **2008/09 DEKRETUA**

Udal honen 2007ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontuhartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

**EBATZI DUT**

**Lehena.-** Udal honen 2007ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2007-12-31n:		120.128,27
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2007-12-31n:		12.970,52
Aurrekontuko zordunak :	6.224,68	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	6.745,84	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2007-12-31n:		44.318,70
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	0,00	
Sarrereren aurrekontuko hartzekodunak:	0,00	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	44.318,70	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakin gordina (1+2+3):		88.780,09
5.- Saldo kobragaitzak:		0,00
6.- Diruzaintzako gerakin likidoa (4-5):		88.780,09
7.- Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina:		0,00
8.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (6-7):		88.780,09
9.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:		76.860,25
10.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:		-333,49
11.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:		0,00
12.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:		-0,00
13.- Aurrekontu emaitza (9+10+11+12):		76.526,76
14.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:		0,00
15.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:		0,00
16.- Kreditu gerakinak, guztira (14+15):		104.356,26

**Bigarrena**.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

**Hirugarrena**.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

### **11.2.R. M. W. ETA C. P. A. JAUN/ANDREAK AURKEZTURIKO KEXA**

Ikusirik R. M. W. R. eta C. P. A. jaun/andreak aurekezturiko kexa, non azaltzen duten Larraulgo Udalak egiten dituen idatziak euskara hutsean direla, eta legearen babesarekin, euren igoerri behar zaizkien idatziak, ofizialak edo ez ofizialak gaztelaniaz edo euskara eta gaztelaniaz izan behar direla.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

#### **ERABAKITZEN DU:**

**LEHENA:** Larraulgo Udalak egingo dituen idatziak (ofizialak edo ez ofizialak) euskaraz izatea. Edozein herritarrek Udalak euskaraz eginiko idatziak ulertzen ez baditu, dituen dudak Udaletxeko bulegoetan argituko zaizkie.

**BIGARRENA:** Herritarrek Udalari gaztelaniaz egindako eskaerak, Udalak, gaztelaniaz erantzungo dizkie.

**HIRUGARRENA:** Interesdunei jakinaraztea, Larraulgo Udalak azken urteetan euskara bultzatzeko ahalegin handiak egiten ari dela, adb. euskara ikasteko diru-laguntzak emanaz.

**LAUGARRENA:** Erabaki honen berri interesdunei ematea.

### **HAMABIGARREN PUNTUA** **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ez dira azaltzen.

*Beste gairik ez dagoenez, gaueko 22.30 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.*

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA